

GEBEren iruzkin teknikoa cryptomeria japonicari buruz

Aspaldi birpopulatu zen espeziea da, eta pixkanaka gaixorik dagoen pinua mozten den lekura sartzen hasi da, batez ere 2016tik aurrera eta gero eta indar handiagoz.

Askotan, pinuaren gaixotasunak gehien erasandako eremuak dira ekoizpen gutxien duten lekuak. Pinua ordezkatzekoan, zaila da horrelako eremuetan aukera egitea. Pinu bat gaixotasunarekin mozten denean, ez du edozein espeziek balio. Cryptomeria, aldiz, oso ondo hazten da oso aberatsak ez diren lurretan, eta horrek espazio gehiago hartzera eta espezie izarra izatera eraman du.

Gipuzkoan dauden espezie horretako landaketa batzuek urte batzuk dituzte dagoeneko, baina oraindik goizegi da ondorioak atera eta pinuaren alternatiba sendoa izan daitekeen ikusteko. Zuraren kalitateari buruzko azterlanen bat egiten ari dira. Nahiko enigmatikoa da zuhaitz honek eman dezakeena; 2018an, Errege egunean, elurte handiak izan ziren eta arazoak izan zituen: intsinis pinuaren antzera etzaten zen.

Japonian, zuhaitz sakratu bat da, eta, bere egurrarekin, gaur egungo eraikinik antzinakoenetako bat eraiki zen. Azoreetan (Portugal) espezie horren landaketa garrantzitsuak daude, eta Portugalen hotel bat eraikitzeko, kanpoko estaldurarako erabili da zura.

Bestalde, ondo hazten ari da eta Aldundia probak egiten saiatzen ari da dagoen egur apurrarekin; 30 urtetik gorako landaketa batzuk daude Urnietako mendi publikoan. Zuhaitz baten aldeko apustua da, baina oraindik ezagutza falta zaigu. Gauza bat da bibliografia, eta bestea hemen nola funtzionatzen duen ikustea.

BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA